

Topalekua

90 zk. 2016ko ekaina

junio 2016 - n.º 90

1-4. orr.: Kontseiluak bosgarren deialdiari dagozkion osagarriak esleitu ditu

2. orr.: Euskadiko matrikulak autonomia-erkidegoen batez bestekoan daude, baina europako 28 herrialdetan baino garestiagoak dira

3. orr.: Euskal enpresek 2016an eskaintako enpleguen %56k goi-mailako ikasketak eskatzen dituzte

4. orr.: Berdintasunaren balioak duen eragina ikasketak hautatzerakoan

KONTSEILUAK BOSGARREN DEIALDIARI DAGOZKION OSAGARRIAK ESLEITU DITU

UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak, ekainaren 8an Bilbon egindako bileran, 1.212 irakasleri (irakasle eta ikerlariri) bosgarren deialdiko B1, B2, B3, A1 eta A2 tarteei dagozkien ordainsari-osagarri gehigarriak eta unibertsitate-eskolako titularren berariazkoa esleitzea onetsi zuen, baita aurreko deialditan beste 1.718 irakaslek lortutako tarte berdinetakoak finkatzea ere.


Osagarriak modu berezian eta banaka esleitzen zaizkio irakasle bakoitzari eta Eusko Jaurlaritzaren 209/2006 Dekretuan xedatutakoaren esparruan epaia behin-behinean exekutatzuz Gizarte Kontseiluak 2015eko ekainean bosgarren deialdirako ezarritako terminoei jarraiki burutu da. Aipatutako deialdi horrek ordainsari osagarriak eskatu ahal izateko edo aurreko deialdietan esleitu izandakoak finkatu ahal izateko irakasleek bete beharreko epeak, modua eta betekizunak ezartzen zituen eta ordainsari osagarriak hiru mailatan sailkatzen zituen: A maila, bikaintasuna aitortzera zuzendua; B maila, kalitatea eta

etengabeko hobekuntza baloratzen duena; eta C maila, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearekiko dedikazio profesionala aitortzen duena.

2011ko promozioiko unibertsitate-tituludunen laneratzeari buruzko txostena.

Bestalde, Kontseiluaren Osoko Bilkurak Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseiluak LANBIDE-rekin elkarlanean burutzen duen 2011ko promozioari dagokion Unibertsitate Tituludunen Laneratzeari buruzko Azterketaren emaitzak aztertu ditu. Txosten horretan egiaztatzen da azterketak amaitu eta hiru urte ostean, ikasleen %73,5 lanean ari zirela; hortaz, %4,1 puntu gora egin du aurreko promozioarekin alderatuta eta horietatik ia %79,6 bere titulazioarekin bat datozen lanetan ari ziren, 1.419 euroko batez besteko diru-sarrerarekin, lanaldi osorako 14 ordainsaritan.

Joera-aldaketa promozioetako tasa nagusietan



EUSKADIKO MATRIKULAK AUTONOMIA-ERKIDEGOEN BATEZ BESTEKOAN DAUDE, BAINA EUROPAKO 28 HERRIALDETAN BAINO GARESTIAGOAK DIRA

Euskadin, graduuko unibertsitate-matrikularen batez besteko prezioa, 2015 urtean (1.012,5 euro) Espainiako batez bestekoa baino zertxobait txikiagoa izan zen (1.099,7 euro), baina CCOO-ko Irakaskuntza Federazioak Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministeriooko eta azken EURYDICE 2015 txosteneko estatistikekin egin-dako "Unibertsitateko matrikulak, bekak, laguntzak eta onura fiskalak Europan" azterketaren barruko Europako 37 herrialdeetakoak baino handiagoa.

Edonola ere, eta gainerako autonomia-erkidegoekin alderatuta, Euskadiko prezioak 9 erkidegoetakoak baino txikiagoak izan ziren eta Kataluniako erdia ziren eta Madrilgoak baino %40 txikiagoak.

Graduko unibertsitate-titulazioetan lehen aldiz matrikulatutako 60 kredituren batez besteko prezio publikoak 2015ean, autonomia-erkidegoen arabera

Autonomia-erkidegoa	Graduko titulazioak				
	Autonomia-erkidego bakoitzeko batez besteko prezioa				
	2015-16 ikasturtea	2014-15 ikasturtea	2013-14 ikasturtea	2012-13 ikasturtea	2011-12 ikasturtea
Katalunia	2.011,4	2.011,4	2.011,4	2.011,4	1.206,8
Madril	1.638,0	1.820,0	1.820,0	1.513,2	1.095,8
Gaztela eta Leon	1.400,3	1.400,3	1.386,4	931,4	774,0
Valentziako erkid.	1.223,4	1.223,4	1.223,4	1.211,3	908,4
Aragoi	1.208,9	1.208,9	1.185,2	1.144,0	1.104,3
Nafarroa	1.152,9	1.152,9	1.152,9	1.138,2	1.094,4
Errioxa	1.101,9	1.101,9	1.101,9	1.085,6	1.063,1
Balear uharteak	1.075,3	1.075,3	1.075,3	1.024,1	937,7
Asturias	1.028,0	1.028,0	1.028,0	1.028,0	1.028,0
Euskadi	1.012,5	1.012,5	1.008,3	984,6	965,3
U.N.E.D	981,2	985,6	971,0	954,9	911,7
Gaztela-Mantxa	948,3	948,3	944,4	1.367,4	964,0
Murtzia	934,8	934,8	934,8	915,6	819,0
Kanariak	912,8	912,8	912,8	912,8	642,3
Extremadura	884,2	884,2	884,2	863,5	847,3
Kantabria	809,8	809,8	809,8	783,8	756,6
Andaluzia	757,2	757,2	757,2	749,4	732,0
Galizia	713,4	713,4	713,4	713,4	713,4
Erkidegoetako batez besteko prezioa (MECD)	1.099,7	1.110,0	1.106,7	1.074,0	920,2

Iturria: MECD Estatistikak

Prezioen bilakaera aztertzean, CCOO-ren txostenak nabarmentzen du graduak %32 gora egin dutela 2011-2012 eta 2015-2016 ikasturteen artean eta masterrek %75. Euskadin graduak prezioak zertxobait igo ziren 2012-2013 ikasturtean eta egonkor jarraitu dute aztertutako gainerako epealdian.


Bekak eta laguntzak

Txostenak azpimarratzen duenez, Espainiak Europar Batasuneko eta Europako Goi Hezkuntzako Gunean (EGHG) unibertsitateko matrikulen preziorik altuenetakoak dauzkaten herrialdeetako bat da, graduak eta masterretan; alde hori nabariagoa da norvegiarrek eta finlandiarrek ezer ez dutela ordaintzen edo alemaniarrek 50 euro bakarrik ordaintzen dituztela aintzat hartuz gero.

Graduko matrikulak Holanda, Irlanda, Italia, Liechtenstein, Letonia, Lituania, Erresuma Batua (Eskozia salbu) eta Suitzako azpitik daude bakarrik.

Gainera, egoerak okerrera egiten du, izan ere, txostenaren egileek diotenez, Espainiako estatuak oso beka- eta laguntza-sistema ahula duelako: lehen a Europa (13. graduak eta 17. masterretan) administrazioaren-gandik inolako laguntzarik jasotzen ez duten ikasle-kopuruari erreparatuta. Hala, ikasle herenak baino zertxobait gehiago bakarrik jasotzen du unibertsitate-ikasketen gastuei aurre egiteko laguntzarik.


BEKADUNEN EHUNEKOAK



* Ez dago estatistika-daturik


Beken batez besteko zenbatekoari dagokionez, txostenak ondorioztatzen du Espainia 22. postuan dagoela aztertutako 37 herrialdeen artean, hamalagarrenen-raino heltzen bada ere beka bat jasotzeko eskubidea ematen duten betekizun akademiko eta ekonomikoekin bat datozen ikasle kopuruari erreparatuta, 2011-2012 ikasturtean irizpideak aldatu zirenetik beken zenbatekoa murriztu egin dela kontuan hartu behar baita.

BEKAK-BATEZ BESTEKO BALIOAK IRIZPIDE EKONOMIKOAK ETA MERITUAK AINTZAT HARTUTA



EUSKAL ENPRESEK 2016AN ESKAINITAKO ENPLEGUEN %56K GOI-MAILAKO IKASKETAK ESKATZEN DITUZTE

Hiru euskal enpresetatik bik aurtan kontratazioaren bat egiteko asmoa dute eta kontratatatu berrien %30 baino gehiago unibertsitate-tituludunak izan beharko dira (%26,7) edo graduondoko/doktorego bat eduki beharko dute (%3,4). %25,7 goi-mailako prestakuntza-zikloetatik etorriko da eta %21,1 erdi-mailako LH-tik, Confebask-ek egindako "Euskal enpresen Enplegu eta Kualifikazio-beharrak 2016rako" azterketaren arabera.



Txostenak adierazten duenez, Euskadiko enpresak 2016an 25.000 lanpostu baino gehiago sortzeko moduan daude eta urte honetarako aurreikusitako enpleguen %97k nolabaiteko kualifikazioa eskatuko du, baina ia bi konpainietatik batek ohartarazten du kontratatzeke zailtasunak dauzkala, eskatzailearen prestakuntza edo gogo eskasarengatik.

Azterketa **euskal patronalaren eta Eusko Jaurlaritzako Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun Sailaren** artean egungo berreskuratze ekonomiko eta industrial euskal enpresek eskatzen duten enplegu- eta kualifikazio-eskari espezifikoa lerrokatzeko lankidetzaproiektuaren esparruaren barruan burutu da eta **enplegu-beharrei** buruzko **informazio asko** ematen du.

Inkestan parte hartu duten enpresen iritzi, **2016an** sortzen den enpleguaren ia erdia, **10.600 lanpostu berriak izango dira**, 3.200ek urtaroko enpleguak beteko dituzte eta gainerakoak errelebo-, erretiro-kontratuak, bajak edo oporraldiak izango dira. Lanpostuak **zerbitzuen** sektorean sortuko dira batez ere (12.000), baina **industrian** ere gora egingo dute (1.200). Eraikuntza da enplegua sortzea aurreikusten ez duen industria-adar bakarra; areago, galera txiki bat izango du.

Profilak


Aterabide profesionalik handiena duten lanpostuak unibertsitateko 3 adarretan metatzen dira, ingeniari-tzetan batez ere (kontratatutako 10 unibertsitate-ikasletik 4 ingeniariak izango dira) eta LHko 5 familatan (Fabrikazio Mekanikoa, Administrazioa eta Gestioa, Elektrizitatea eta Elektronika, Instalazioa eta Mantentze eta Merkataritza eta Marketina). Nabarmengarria da, halaber, enpresen zuzendaritza eta administrazioan lizentziatutakoen eskaria, eskainitako lanpostuen ia %20 baita.

2016an AURREIKUSITAKO KONTRATAZIOAREN BANAKETA, UNIBERTSITATE IKASKETEN FAMILIEN ARABERA



Aurreikusitako kontratazioaren ia %40k ekoizpen-, muntaketa- eta mantentze-lanpostuak beteko dituzte (11.644 lagun) edo merkaturatzearekin eta marketin eta salmentekin loturiko lanpostuak (7.245). Erdi mailako arduradunak (lantegiko buruak, talde-buruak...) aurreikusitako kontratazioaren ia %10 izango dira (2.070 lagun) eta langile tekniko zientifikoak (6 inguru (1.397 lagun).

2016an AURREIKUSITAKO KONTRATAZIOAREN BANAKETA, LANBIDE-TALDEAREN ARABERA



Gaitasunak

Enpresek kontratatzeke orduan gehien baloratzen dutena lanarekiko jarrera pertsonala, langilearen gogoia eta interesa dira (lehentasunezkoa euskal enpresen %78arentzat), eskarmentuaren eta prestakuntzaren/titulazioaren aurretik. Bost enpresetatik batek bakarrik (%21,3) hizkuntzak aipatzen ditu lehentasunezko irizpide gisa.

Inkestan parte hartu duten enpresek gehien nabarmentzen dituzten balioak ardura eta irmotasuna, autonomia eta konfiantza, balio-aniztasuna eta moldagarritasuna eta laneko jarrera positiboa dira. Soldata ez da oztopo kontratatzeke orduan, elkarriketatutakoen %14k bakarrik aipatzen baitu.

BERDINTASUNAREN BALIOAK DUEN ERAGINA IKASKETAK HAUTATZERAKOAN

Batxilergoko bigarren mailako euskal ikasleek etorkizuneko unibertsitate-ikasketak sexuaren arabera aukeratzen jarraitzen dute: emakumezkoek lanbide sozialak lehenesten dituzte eta gizonezkoek, berriz, karrera teknikoak, Instituto Vasco de la Mujer-Emakunderen azterketaren arabera.

Azterketan 32 ikastetxetako 2. mailako 1.303 ikaslek, 105 irakaslek eta 140 gurasok parte hartu dute eta haren arabera ikasketa-maila horretako neska-mutil gehienek ez dute antzematen genero-estereotipoek beren hautapen askea baldintzatzen dutenik, nahiz eta azkenerako aukeraketa generoaren arabera egiten duten. Inkestan parte hartu duten ikasleen gehiengo nagusiak adierazi zuen hautapena, funtsean, bere gustuetan oinarritzen zela eta "bokazioz" hartzen zutela.

Ikerketak 'emakumea-irakaslea-medikua' eta 'gizona-ingeniaria-teknikoa' ereduak bere horretan jarraitzen dutela egiaztatzen du. Hala, emakumeek 'Osasun-zientziak', 'Arteak eta Humanitateak' eta 'Gizarte Zientziak eta Sozialak' adarren barruko titulazioak hautatzen dituzte gizonek baino gehiago. Aldiz, 'Ingeniaritza eta Arkitektura' titulazioek gizonezko profila izaten jarraitzen dute hein handi batean (matrikulazioen ehuneko 70 baino gehiago).

Txostenaren arabera, genero-rol eta estereotipoek neska-mutilen aukera askea baldintzatzen jarraitzen dute, neska "maskulinizatutzat" eta mutilak "feminizatutzat" jotzen diren ikasketetara sartzea zailago egiten dute eta garapen profesionala eta lan-merkatuan kokatzea baldintzatzen dituzte.

Batxilergoko 2. mailako ikasleen %70 ingururen ustez, emakumeek ez daukate gizonezkoen antzeko lan-baldintzak, baina gizonezkoen ia %50ek ez du hori uste.

Emakunderen iritziz, "lan-ingurua, oraindik ere, konpondu gabeko arazoa da"; bertan sexuaren araberrako ezberdintasunik handienak agertzen dira, eta hala ere mutilak ez dira "neskek bezalako neurrian" aurrez-aurre topatzen dituzten oztipoak antzemateko gai.

Azterketak ondorioztatzen duenez, "Euskadiko 17 urteko neska-mutilen belaunaldiaren autonomia indibidualaz hitz egin daiteke Batxilergoko 2. maila amaitutakoan erabakia hartzeko unean titulu zehatzari dagokionez baina ez hainbeste ibilbideari dagokionez, unibertsitate-ibilbideari kasu honetan, neskengan mutilengan baino gehiago, gurasoen eraginarengatik".

(1. orritik dator)

Hauek dira azterketa horretako beste ondorio nabarmenagarririk batzuk:

- Bitarteko sozialen sareak (pertsonalak, senidekoak, profesionalak) laneratzeko lehenbizi sartzeko osatzen du (%24). Horren ostean enpresetara CVA edota auto-hautagaitzak bidaltzea dator (%17). Prentsa eta Internet erabiltzea %15era heldzen da.
- Gehienak ETE nazionalen aritzen dira.
- Tituludun gehienak enpresa pribatuaren ari diren lanean (%71,8), esparru nazionalakoetan oro har (%57) eta gutxiago nazioartekoetan (%14,8). Edonola ere, sektore publikoak (enpresa publikoak + publiko-pribatuak) tituludun horien %20ri ematen die lana, osasungintzari eta hezkuntzari loturiko esparruetan bereziki.
- Hauek dira jarduerak-ildorik ohikoena: Hezkuntza (%19), ondoren Higiezinak loturiko Jarduerak, Informatika, I+G eta Enpresa Zerb. (%17), Industria (%16) eta Osasungintza eta Gizarte Zerbitzuak (%14).
- Lanaren kalitateak okerrera egin du: Titulazioari loturiko enpleguak (%78,6) okerrera egin du aurreko promozioarekin alderatuta Enplegu egonkorra (%43,1) serie osoko baxuena da.
- Lanaldi murriztua (%25,9).
- Batez besteko diru-sarrera, lanaldi osorako eta 14 ordainsaritan (1.419 €), azken urteotako behera egiteko joera hautsi da, baina 2007ko amaieran elkarriketatutako promozioaren azpitik dago, aurreko promozioarekin alderatuta %1,5 hobera egin badu ere. Lanean ari diren %26,3k 1.500€ baino gehiagoko diru-sarrerak eskuratzen dituzte hilero; zenbateko hori bere horretan mantendu da 2010eko promozioarekin alderatuta.
- Lanarekiko gogobetetasuna 6,95era heldu da promozio honetan (10etik), 2010eko promozioa baino zertxobait gehiago.
- Gehienek hizkuntzak darabiltzate beren lanpostuetan: %49k euskara maiz erabiltzen du (ia %69 Sozialetan) eta %31k ingelesa (gehiago teknikoetan, esperimentaletan eta humanitateetan).
- %69k uste du bere lana egindako ikasketekin nahiko edo oso lotuta dagoela.
- Gaur egungo enpleguari dagokionez, proposatutako alderdietatik, pertsonen arteko harremanak eta burututako egitekoak dira baloratuenak. Soldata, lan-egonkortasuna gutxien baloratzen direnak.
- Promozio hori krisialdi batean lizentziatu zen eta, beraz, datuek testuinguru ekonomikoaren eta lan-merkatuaren eragin nabarmena dute.
- Lan-merkatu BPG eta unibertsitate-ikasle gazteen lan-jarduerak EAEn behera egiten ari diren unean heldu dira.
- Pertsona hauek 2011-2014 (4. hiruilekoa) epealdian etorri dira lan-merkatura tituludun gisa eta epealdi horretan elkarriketatutako enplegu-tasak 3,2 puntu behera egin du, eta langabezia-tasak 1,2 puntu gora.
- Tituludun horien enplegu-tasa PRAK (Eustat) 25 eta 34 urte arteko unibertsitate-ikasleen kolektiborako agertzen duena baino txikiagoa da.
- Emakumezko unibertsitate-ikasleen egoera gizonezkoena baino okerragoa da oraindik ere.

Laneratzeari buruzko Azterketak ikasleen arteko langabezia-tasa %18koa dela ere egiaztatzen du. Enpleguaren kalitateari dagokionez, ezagutza-alorre erreparatuta, ikasketekin loturiko enplegu-mailarik handiena Osasungintzaren esparruko ikasketak egin dituztenen artean ematen dela nabarmendu daiteke (%99) eta txikiena, berriz, alor ekonomiko-juridikoko ikasketak egin zituztenen artean (%61). Tartean, titulazio teknikoak (%91), esperimentalak (%85) eta sozialak (%73) egin zituztenak. Gizarte Kontseiluaren web orrian, www.gizartekontseilua.eus txostena osorik irakur daiteke.

UPV/EHUko Gizarte Kontseiluak, Egailan-ekin batera lehenik eta Lanbide-rekin batera geroago 1997an abiarazitako Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen Tituludunen laneratzeari buruzko Txostenak promozio guztien egoera aztertu du, ikasketak amaitu eta hiru urtera. Proiektuaren helburua ikasleen lan-egoera eta lortutako prestakuntza-mailaren eta lanpostuaren arteko doikuntza aztertzea da, gradu ondoko ikasturtea hasi baino lehen eta amaitu eta hiru urtera, baita enpleguak inkestaren unean dituen ezaugarriak aztertzea eta ikasle egresatuek gradu ondoko prestakuntzarekiko duten gogobetetasuna edo beren igurikimenak bete ote diren ikertzea ere.

Master berrien ezarpena

Kontseiluak, halaber, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari bost master berri (Kontuen Ikuskapena eta Goi mailako Kontabilitatea, Aktuariatza eta Finantza Zientziak, Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia, Meatzaritza eta International Master in Sociology of Law) ezartzea eta lau (Zahartze Osasungarria eta Bizi-kalitatea, Osasungintzako Psikologia Orokorra, Antolaketa Industrialeko Ingeniaritza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, LH eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza) aldaraztea eta bi gradu (Finantzak eta Aseguruak eta Geomatika eta Topografiako Ingeniaritza) eta hiru master (Unibertsitatearen arteko Soziologia Juridikoa, Goi mailako Prestazioko Konputazioa, eta Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia, ikasketa-plana aldatzen baitu) kentzea eskatu du.

Atal akademiko berean, Osoko Bilkurak Emuylsion Poymerization Processes ikasketa osagarriko ikastaroaren tasak ezarri eta beste biren matrikula-prezioak baliozkotu ditu (Scientific diving, 2. edizioa, Ingeniaritza Zibileko eta Meatzaritzako Atzemate Masiboko Sentsoreak).